

CELEBRANDO TESTIMONIOS DE AMOR
Maitasuna euskarri

12 de abril de 2020
DOMINGO DE RESURRECCION



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis

Musika: Se mi luz.



Sarrera

Egunotan bihotzez sentitu dugu Jainkoak Nazareteko Jesusengan izugarrizko maitasuna erakutsi digula bere bizia eman arte. Gaur, bizitzea egokitu zaigun egoera honetan, horixe ospatu nahi dugu, hain zuzen ere: egun batean, Maitasunez BIZIRA deitu gintuen, eta bere burua oso-osorik Nazareteko Jesusengan eskaini digun Jainkoa BETI IZANGO DELA GURE ONDOAN. Bizitzako inguruabarrak gogorrak badira, orduan eta gertuago izango dugu, gaur egun makaltasun handia jasaten dutenen alde egiten dugun bezala, euskarri eta zaintzaile izanik.

Igande honetan, gure familiarekin batera, gure artetik joan direnak esker onez gogoratzuz, gure auzotarrekin batera hainbeste profesionalen konpromisoazko lana eskertuz eta txalotuz, gure auzotar nagusiei enkarguren bat eginez, seme-alabei ikasturteari jarraitzen lagunduz, elkartasun-sareren batean boluntario bezala jardunez, Berpizkundean aditzera emandako Jainkoaren behin betiko maitasun hori sentitu nahi dugu. Eta, aldi berean, Jainkoaren maitasun eta argi izan nahi dugu gaur BIZIAN sinetsi beharra duen hainbeste eta hainbeste lagunentzat.

Ebanjelioa: Mt 28, 1-10

¹Larunbata igaro eta asteko lehen eguna argitzean, Magdalako Maria eta beste Maria hilobia ikustera joan ziren. ²Bat-batean, lurrikara gogorra gertatu zen; Jaunaren aingerua jaitsi zen zerutik eta, hurbildurik, harria biratu zuen eta gainean eseri. ³Tximista zirudien eta haren jantzia elurra bezain zuria zen. ⁴Hura ikustean, beldurrez dar-dar eta hilda bezala gelditu ziren zaintzaileak. ⁵Baina aingerua emakumeei mintzatu zitzaien, esanez: «Zuek ez beldurtu. Badakit Jesus gurutziltzatuaren bila zabiltzatela. ⁶Ez dago hemen, piztua baita, esan zuen bezala. Zatozte eta ikusi ezarria egon zeneko tokia. ⁷Gero, zoazte bizkor ikasleei esatera: "Hilen artetik piztua da eta zuen aurretik joango da Galileara; han ikusiko duzue". Hau da esan behar nizuena». ⁸Hilobitik arin-arin alde egin eta, ikaraz eta poz-pozik, ikasleei berri ematera joan ziren lasterka.



⁹Hartan, Jesus atera zitzaien bidera eta agurtu egin zituen. Emakumek, ondoraturik, oinak besarkatu zizkioten eta gurtu egin zuten. ¹⁰Jesusek esan zien: «Ez beldurtu! Zoazte eta esan nire senideei Galileara joateko; han ikusiko naute»

Azalpenak

Ez zaizu inoiz gertatu, egundoko berri ona jaso inondik inora espero ez zenuenean? Eta jasotzean, sinetsi ezinik geratu, ustekabea izatean. Baina, denbora apur bat igaro eta, bai, baiezkoa dela, eman dizuten berria egia dela konturatu, ezin egon, eta norbaiti berehala kontatzeko gogoia bizten zaizu.

Horrelako zerbait gertatu zitzaien Jesus ezagutzeko zoriona izan zuten emakume haiei. Lehenak izan ziren ezagutzen, Jesusen bizi-egitasmoaz maitemintzen eta hiru urteren buruan, gurutzearen oinetan aurkitu ziren negarrez, amestutako guztia, Jesusekin bizi zuten guztia pikutara joan zela-eta. Esperientzia hau ezagutzen dugu, batik bat egun hauetan. Erabateko iluntasunean, egundoko etsipenean, bere aldetik den-dena jarri arren, bizitzak zentzugabekeria, atsekabea eta porrotik mingarriena dastarazi eta argi-izpirik espero ez zitekenean, ezin susmatuzko eran, bat-batean, nola azaldu ongo jakin gabe, dena berriz ere kolorez betetzen hasten da.

Azalpenak

Emakumeak dira bi unetan garatzen den kontaketa honetan. Lehenengo, berria jasotzen dute: Jesus ez dago hilen artean, biztu egin da. Kontalariak Aingeruaren irudiarekin azaltzen du. Eta emakumeen ez dute sinisten; izan be, egia esan, hau geuri ere gertatzen zaigu: gauza bat da bihotzez nahi duguna eta beste bat arrazoiak gerta daitekeen bakarra zer den esaten diguna... Kasu honetan, emakumeek biziki sentitzen dute bihotzaren erdi-erdian sortzen den eta oin-puntaraino iristen zaien egundoko poz hori!! Eta martxan jartzen dira!



Susmoa izango da, edo bihozkada, baina emakume hauek nolabaiteko ziurtasuna dute, eta lehenak dira!, oraindik guztiz ulertzen ez duten zerbait berria hasi deneko ziurtasuna dute!

SEMANA SANTA 2020 – DOMINGO DE RESURRECCIÓN

Martxan jarririk, bihotza ahotik ateratzen zaiela, lasterka doaz berri ematera: Jesus biztu egin da! Adiskidea bizirik da! Baina, kontua da, Jesus ezagutu zuten eta orain etxean itxita, izututa, eta lur jota zeuden haiei ematera zihoazen berri on hura, dagoeneko emakumeengan Jesus bera bezain esperientzia erreala dela! Horixe adierazi nahi digu kontalariak, emakumeak belaunikatu eta Jesus gurtu egin zutela dioskunean. Jakinarazi behar zuten esperientzia, esperientzia erabat eraldatzailea zen beraientzat. Eta esperientzia benetakoa denean, benetakoa dan zerbait bizi dugunean, nahitaez kutsatzen diegu inguruko guztiei. Ez ote dira benetakoak, hunkigarriak egun hauetan leihoetara eta balkoietara atera eta eskaintzen ditugun txaloak, apurka-apurka, leihoz leiho, hasi eta hazi eta hazi egiten den txalo-zaparrada? Beste era batera esanda, orduko eta oraingo barri ona, ahalkez bada ere, Jesus berpiztu egin dela sentitzea da, hau da, Jainkoa orduan, gaur eta bihar, emakume eta gizon bakoitzaren eta guztien ondoan dagoela eta bere Biziaren zati bat ere ez dela galduko sentitzea da.



Maitatu, sendatu, negar egin eta piztu egin zen

Elkarrekin ikusiko dugu!



Otoitza

Goiz honetan, bizkarra zuzendu, aurpegia ireki, egunsentia arnastu eta bizia aukeratzen dut.

Goiz honetan, kolpeak onartu, mugak isildu, beldurrak uxatu eta bizia aukeratzen dut.

Goiz honetan, begietara begiratu, bizkarra besarkatu, nire hitza eman eta bizia aukeratzen dut.

Goizean, bakea bildu, etorkizuna sustatu, poza banatu eta bizia aukeratzen dut.

Goiz honetan, heriotzean bilatzen zaitut, basatik altxatzen, lepoan hartzen –hain hauskor- eta bizia aukeratzen dut.

Goiz honetan, isilik entzuten zaitut, zutaz betetzen naiz, hurbiletik jarraitzen zaitut eta bizia aukeratzen dut.



(Benjamin Gonzalez Buelta, sj)

Ipuina

Guru batek gaua noiz bukatzen eta eguna noiz hasten zen galdetu zien ikasleei. Batek esan zion:

«Animalia distantziara ikusi eta behia edo zaldia den bereiz dezakezunean».

«Ez». Esan zuen guruak.


«Distantziara begiratu eta zuhaitz bat haritza edo almendrondoa den bereiz dezakezunean».

«Ezta ere», esan zuen guruak.

«Ongi», esan zuten ikasleek. «Ezaiguzu noiz den».

«Gizon bati aurpegira begiratzen diozunean eta bera zeure anai bezala aitortzen duzunean; emakume bati aurpegira begiratu eta bera arreba bezala aitortzen duzunean. Horretarako gai ez bazara, edozein izanda ere ordua, oraindik gaua da».

(Tony de Mello)



Elkarrekin egiteko

Sua eta ura ezinbestekoak dira bizitzarako. Sua, bizia izateko ezinbesteko diren bi ezaugarriren iturri da: argia eta berotasuna. Ura, izaki bizidunaren osagarri nagusia da. Kartel bat margotuko dugu, #astesantuaetxean hashtagarekin, kandela biztu eta urez beteriko ontziaren aurrean ipiniko dugu. "Gure Aita" errezatuko dugu elkarri eskua emanda dugula eta zirkuluan jarrita. Argazkia atera eta sare sozialetan jar dezakegu, #astesantuaetxean hashtaga erabiliz. Beste hau ere erabil dezaketu, bilbokoelizbarrutia@gmail.com, sare sozialetan eta elizbarrutiko aldizkarian argitaratzeko. Bigarren hau aukeratuz gero, hau da, argazkia helbide elektronikora bidaltzen badugu, nork eta nondik bidali duen jarri behar da eta Pazko Eguneko argazkia dela adierazi #astesantuaetxean. hashtagaren bidez.



#astesantuaetxean



2020ko ASTE SANTUA – PAZKO EGUNA

Bizi dugun egoera gogor eta estua bada ere, Pazko zoriontsua bizi dezazuela opa dizuegu. Bizitzako egun guztietan ondoan dugun Jainkoarenganako fedea euskarri dugula, ahul bada ere, gure artean ematen den maitasun eta elkartasun keinu bakoitzean antzeman dezakegun berpizkundearen itxaropenera ireki nahi dugu geure bihotza.

Pazko Zoriontsua!

